



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko uztailaren 28a

79. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Erroibar-Oreaga Fundazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, “32000 310000 7459 452102 Erroibar-Oreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, “32000 310000 4459 452102 Erroibar-Oreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Orreagako Udalari 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko ea proiekturen bat aurkeztu den Izaiberbarren Haragiaren Hiria jartzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakiteko ea araurik prestatu duen parke eolikoak berriz bultzatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko ea parke eoliko berrien onespena bertan behera utzi duen epaiak zer eragin izan duen Nafarroako mapa eolikoan. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, esnearen sektorearentzako premiazko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapena jartzeko erabiltzen diren irizpideei eta legediari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea errepideetako gaueko argiztapenak argi kutsadurari buruzko legedia betetzen duen. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapenak dakarren energia kontsumoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Iruñeko ekialdeko ingurabideko gaueko argiztapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Iruñeko ekialdeko ingurabidea argiztatzen duten kale-argiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendariko 92. orrialdean 102. jarduketari buruz hitz egitean akatsa egin den. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, abere-saneamenduko zerbitzu berria Tragsega enpresari esleitu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, aurrekontua murriztu izanaren ondorioz Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planean 2010ean eginen ez diren jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Iruñerrian abiadura handiko trenaren geltokia eraikitzen hasteko urbanizazio proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, “I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru-laguntzak enpresentzat” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, “I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru-laguntzak enpresentzat” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, “Merkataritza sektoreko profesionalizazioa eta berrikuntza” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, “Nafarroako Merkataritza Federazioarentzako dirulaguntza, Nafarroako Merkataritzari buruzko Foru Legea aztertzeko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, “Enpresak gizarte ekonomiako enpresa bihurtzeko laguntzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, “Enpresak gizarte ekonomiako enpresa bihurtzeko laguntzak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, “Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak lan munduan sartzeko jarduerak, kofinantzatu gabeak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, “Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak lan munduan sartzeko jarduerak, kofinantzatu gabeak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, “Kooperatiba eta lan sozietateetarako diru-laguntzak, enplegua sostengatzeko” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, “Kooperatiba eta lan sozietateetarako diru-laguntzak, enplegua sostengatzeko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, “Interes sozialeko erkidego-enpleguko programa” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, “Ilundain Fundazioa-Lan Sarrearan” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, Enpleguari buruzko Plana garatu eta aplikatzeko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, “Gizarterako zentroentzako dirulaguntzak inbertsioengatik” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, “UPTArekiko hitzarmena, lan autonomia sustatzeko eta babesteko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidean Artaxoa eta Tafalla artean agertu diren pitzadurei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Santo Domingo zahar-etxeko egoiliarrek beste zahar-etxe batzuetara eraman behar izateko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, 2009-2016 urteetarako Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendariko 102. eta 103. jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan diren Nafarroako batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planak. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, “Harrizko ezpondak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

- Galdera, “Harrizko ezpondak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, “Zilbetiko errepidea” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, “Zeharbideak eta hitzarmenak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, “Zeharbideak eta hitzarmenak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: tarifa sozialak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: gazteak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: gazteak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, “Tafallako saihesbidearen proiektua” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, “Garraio publikoari buruzko azterlanak eta proiektuak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, “Garraio publikoa sustatzeko ekintzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, zenbait kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Erroibar-Orreaga Fundazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Erroibar-Orreaga Fundazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Erroibar-Orreaga Fundazioari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Erroibar-Orreaga Fundazioa oraindik ez da eratu. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak gastu-baimen bat aurreikusten du 2010erako eta, zeharka, Nafarroako Parlamentuak onspena ematen dio Fundazio hori sortzeari.

Aurrekontuko bi partida horiek zein proiektutara bideratuko diren Fundazioa eratu ondoren erabakiko da. Zalantzarik gabe, tokiko erakundeek hartuko dute parte Fundazioan eta, edozein kasutan, kontusailak zonaldearen garapen sozioekonomikora bideratuko dira.

Beste eremu batzuetan frogatu den moduan, fundazioak oso tresna baliagarriak dira beren hurbiltasunagatik eta tokiko interesak ezagutzeagatik garapen-proiektuak eta -helburuak zehazteko orduan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 3an

Toki Administrazioako kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, “32000 310000 7459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “32000 310000 7459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentu-

ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Erroibar-Orreaga Fundazioari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Erroibar-Orreaga Fundazioa oraindik ez da eratu. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak gastu-baimen bat aurreikusten du 2010erako eta, zeharka, Nafarroako Parlamentuak onspena ematen dio Fundazio hori sortzeari.

Aurrekontuko bi partida horiek zein proiektutara bideratuko diren Fundazioa eratu ondoren erabaki-

ko da. Zalantzarik gabe, tokiko erakundeek hartuko dute parte Fundazioan eta, edozein kasutan, kontusailak zonaldearen garapen sozioekonomikora bideratuko dira.

Beste eremu batzuetan frogatu den moduan, fundazioak oso tresna baliagarriak dira beren hurbiltasunagatik eta tokiko interesak ezagutzeagatik garapen-proiektuak eta -helburuak zehazteko orduan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 3an

Toki Administrazioako kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, “32000 310000 4459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “32000 310000 4459 452102 Erroibar-Orreaga Fundazioa” kontusailaren helburuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Erroibar-Orreaga Fundazioari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Erroibar-Orreaga Fundazioa oraindik ez da eratu. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak gastu-baimen bat aurreikusten du 2010erako eta, zeharka, Nafarroako Parlamentuak onspena ematen dio Fundazio hori sortzeari.

Aurrekontuko bi partida horiek zein proiektutara bideratuko diren Fundazioa eratu ondoren erabakiko da. Zalantzarik gabe, tokiko erakundeek hartuko dute parte Fundazioan eta, edozein kasutan, kontusailak zonaldearen garapen sozioekonomikora bideratuko dira.

Beste eremu batzuetan frogatu den moduan, fundazioak oso tresna baliagarriak dira beren hurbiltasunagatik eta tokiko interesak ezagutzeagatik garapen-proiektuak eta -helburuak zehazteko orduan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 3an

Toki Administrazioako kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, Orreagako Udalari 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Orreagako Udalari 2000tik hona emandako laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Osasun kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Ángel Aguirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Orreagako Udalari 2000tik hona emandako dirulaguntzei buruz (PES-331/09). Hona erantzuna:

Hauexek izan dira Osasun Departamentuak Orreagako Udalari emandako dirulaguntzak:

Urtea	Kontzeptua	Zenbatekoa
2001	Kontsultategirako dirulaguntza	349,85 €
2002	Kontsultategirako dirulaguntza	349,80 €
2003	Kontsultategirako dirulaguntza	376,00 €
2004	Kontsultategirako dirulaguntza	380,70 €
2005	Kontsultategirako dirulaguntza	388,50 €
2006	Kontsultategirako dirulaguntza	407,90 €
2007	Kontsultategirako dirulaguntza	424,30€
2008	Kontsultategirako dirulaguntza	444,70 €
2009	Kontsultategirako dirulaguntza	453,20 €

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 13ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Orreagako Udalari 2000tik hona emandako dirulaguntzei buruz (PES-331/09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Departamentu honek dituen eskumenen barruan, 2000tik hona dirulaguntza hauek eman zaizkio Orreagako Udalari

a) 2002. urtean. Nafarroako Kirol eta Gazterien Institutuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 11ko 728/2002 Ebazpenaren bidez, 2.539,47 euroko dirulaguntza eman zen Orreagako Gazte Kanpaldietako Udal Gunea hornitzeko.

b) 2003. urtean. Nafarroako Kirol eta Gazterien Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 1eko 715/2003 Ebazpenaren bidez, 17.221,00 euroko dirulaguntza eman zen Orreagako Gazte Kanpaldietako Udal Gunea hornitzeko.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 19an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Orreagako Udalari emandako dirulaguntzei buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 21ean

Toki Administrazioako kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

ORREAGAKO UDALA

Xedea / Helburua	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Transferentzia arruntak										
Toki entitateek Nafarroako tributuetai parte hartzeko funtsa	5.160,22	4.938,18	5.505,80	5.641,24	8.496,49	9.137,18	10.591,62	12.142,24	12.853,70	14.539,04
Montepioaren finantzaketa	236,36	274,34	237,40	213,92	195,30	213,52				
Estatuaren tributuetai parte hartzea	22,93	24,76	27,56	29,06	25,92	28,10	32,47	30,57	22,05	22,66
Telefonia	335,44	314,35	438,70	228,84	437,45	1.186,04	654,67	418,75	52,96	238,84
Udalak finantzatzeko plan berezia									548,93	
Transferentzia arruntak guztira	5.754,95	5.551,63	6.209,46	6.113,06	9.155,16	10.564,84	11.278,76	12.591,56	13.477,64	14.800,54
Kapital-transferentziak										
Toki entitateek Nafarroako tributuetai parte hartzeko funtsa Ur-hargune berria Soritegi errekatik						55.848,98				
Toki entitateek Nafarroako tributuetai parte hartzeko funtsa Erabaki askeko ekarpena										5.589,31
Hiri-aitzarietarako dirulaguntza								2.359,82		
Hiri-seinaleetarako dirulaguntza									421,60	
Kapital-transferentziak guztira	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	55.848,98	0,00	2.359,82	421,60	5.589,31
Urtean guztira	5.754,95	5.551,63	6.209,46	6.113,06	9.155,16	66.413,82	11.278,76	14.951,38	13.899,24	20.389,85

DEPARTAMENTUAREN INBERTSIO-PLANAK (TOKI-OGASUNEN FUNTSA)

Espedientearen kodea	Eskuratze modua	Titularren izena	Espedientearen titulua	Zenbateko tekniko osoa	Lagundutako zenbateko osoa	Ordaindutako zenbateko osoa	Dirulaguntzaren ehunekoa
20-0-04	F	ORREAGA	UR-HARGUNE BERRIA SORITEGI ERREKATIK	64784,82	50766,72	50766,72	100,00
20-0-04-1	F	ORREAGA	UR-HARGUNE BERRIA SORITEGI ERREKATIK	0,00	5082,26	5082,26	100,00
LD21100	N	ORREAGA	Orreagako hornikuntza	5589,31	5589,31	0,00	0,00

Altzariak eskuratu eta instalatzeko laguntzak (2/2007 Foru Agindua)

Ebazpen zk.	Ebazpen urtea	Ebazpen data	Ordainketa eskatutako data	Aurkeztutako gastua	Gastu onargarria	Ordaindutakoa
258	2008	2008/03/07	28/11/2007	4719,65	4719,65	2359,825

Oztopoak kentzeko laguntzak (seinaleak) (9/2008 Foru Agindua)

Ebazpen zk.	Ebazpen urtea	Ebazpen data	Ordainketa eskatutako data	Aurkeztutako gastua	Gastu onargarria	Ordaindutakoa
1555	2008	31/12/2008	2008/11/28	950,01	843,2	421,6

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2000tik hona Orreagako Udalari emandako dirulaguntzei buruz (PES-331 gisa sailkatua). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Gure kontabilitate-erregistroetan dauden datuen arabera, udal horri 198,36 € ordaindu zaizkio urtero, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren kargura, "Bake Epaitegietarako Transferentziak" kontzeptuagatik.

Departamentu honi atxikitako enpresa publiko-
ei dagokionez, bitarte horretan ez omen diote laguntzarik eman tokiko erakunde horri.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak galdera egin du Orreagako Udalari 2000tik hona emandako laguntzei buruz (PES-331/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Orreagako Udalari ondoko taulan ageri diren laguntzak eman zaizkio Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren otsailaren 10eko 15/2005 Foru Agindua oinarri hartuta; agindu horren bidez daude araututa, hain zuzen, guztiendako eta gizartearendako interesa duten obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako dirulaguntzak.

Urtea	Eskatutako dirulaguntza	Emaniko dirulaguntza	Obra edo zerbitzua
2005	11.189	11.189	Turistei eta erromesei laguntza emateko zerbitzurako administrari laguntzaile bat kontratatzea.
2006	11.607	11.607	Turistei eta erromesei laguntza emateko zerbitzurako administrari laguntzaile bat kontratatzea.
2007	14.311	12.202	Turistei eta erromesei laguntza emateko zerbitzurako administrari laguntzaile bat kontratatzea.
2008	13.926	12.592	Turistei eta erromesei laguntza emateko zerbitzurako administrari laguntzaile bat kontratatzea.
2009	14.018	12.230	Turistei eta erromesei laguntza emateko zerbitzurako administrari laguntzaile bat kontratatzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 11n

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, Laura Alba Cuadrado, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren ordeiz

Galdera, jakiteko ea proiekturen bat aurkeztu den Izaiberbarren Haragiaren Hiria jartzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du jakiteko ea proiekturen bat aurkeztu den Izaiberbarren Haragiaren Hiria jartzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna

Convergencia de Demócratas de Navarra foru-parlamentariaren elkarteko José Andrés Burguete Torres jaunak informazioa eskatu du "Haragiaren Hiria" izeneko proiektuari buruz (PES- 16/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan ez da ageri Haragiaren Hiria izeneko edo harekin lotutako proiekturik ekonomia-jardueren esparru horretan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

CDN-Convergencia de Demócratas de Navarra foru-parlamentariaren elkarteko José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du, Nafarroako Gobernuari Haragiaren Hiria izeneko edo harekin lotutako proiekturik aurkeztu ote zaion, Izarbeibarko ekonomia-jardueren esparruan kokatzekoa denik (PES 16). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuan ez da ageri Haragiaren Hiria izeneko edo harekin lotutako proiekturik ekonomia-jardueren esparru horretan.

Bestalde, 2008ko abenduaren 1ean "La Protectora, S.A."k memoria-laburpen bat aurkeztu zuen, alde zuzeneko kontsultak eginez Haragiaren Hiriko Ingurumen Baimen Integratua kudeatzeko

Legardan, Izarbeibarko ekonomia-jardueren esparruan.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduen 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko martxoaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Etxebizitza era Lurralde Antolamenduko kontseilariaren erantzuna

CDN-Convergencia de Demócratas de Navarra foru-parlamentariaren elkarteko José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du, Nafarroako Gobernuari Haragiaren Hiria izeneko edo harekin lotutako proiekturik aurkeztu ote zaion, Izarbeibarko ekonomia-jardueren esparruan kokatzekoa denik. Hona Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko kontseilariaren erantzuna:

Une honetan ez dago Haragiaren Hiria izeneko proiekturik eta, Izarbeibarko ekonomia-jardueren esparruari dagokionez, bi espediente ari dira izapidetzen:

– "Nafarroa 2012 Plana. Lehenetsitako Esku-hartzea. Izarbeibarko Ekonomia Jardueren Esparrua" udalez gaindiko eragina duen plan sektorialaren aldaketa. Bertan sartzen dira, besteak beste, hondakin-ur industrialen araztegi-sistema, edatekoa ez den ura saneatzeko eta hornitzeko kanalizazioen ibilbideak eta Utergako bide-indargarriak eta saihesbidea. NASUINSA enpresa publikoak sustatua da (Nafarroako Gobernuaren erabakia, 2010eko martxoaren 1ekoa, espedientea izapidetzeari hasiera ematen diona, eta jendeak eta dagokion udalak ikusteko moduan jartzen da, Lurraldearen Antolamenduko eta Hirigintzako abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen ondorioetarako, eta ingurumen eraginaren ebaluazioaren ondorioetarako – Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 37. zk. - 2010eko martxoaren 24a).

– Izarbeibarko ekonomia-jardueren esparruko udalez gaindiko plan sektoriala urbanizatzeko proiektua, Nasuinsak sustatua (2010eko martxoaren 15eko 364 Ebazpena, Lurralde Antolamenduko eta Etxebizitzako zuzendari nagusiarena, espedienteari hasierako onarpena ematen diona)

Etxebizitza era Lurralde Antolamenduko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, jakiteko ea araurik prestatu duen parke eolikoak berriz bultzatzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du jakiteko ea araurik prestatu duen parke eolikoak berriz bultzatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru-parlamentariaren elkarteko José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroan energia

berriztagarrien arloan dagoen araudiari buruz (PES-17/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Galderak harremanean jartzen du parke eolikoak berrindartzea eta Nafarroako Gobernuaren erabakia edo borondatea, baina, berez, enpresena bakarrik da erabakia, enpresak baitira parkeen ustiatzaileak, eta ez Foru Administrazioa.

Departamentuaren ustez, ez da araudi gehigarririk behar parke eolikoak berrindartzea baimentzeko. Berrindartze-prozesua baldintzatzen dute nazio mailako lege-eszenategi berri batek eta Red Eléctrica Española kudeatutako garraio-lineen irteera-aukerek.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, jakiteko ea parke eoliko berrien onespena bertan behera utzi duen epaiak zer eragin izanen duen Nafarroako mapa eolikoan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du jakiteko ea parke eoliko berrien onespena bertan behera utzi duen epaiak zer eragin izanen duen Nafarroako mapa eolikoan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru-parlamentariaren elkarteko José Andrés Burguete Torres jaunak informazioa eskatu 2007ko urriaren 2ko epaiari buruz, non ezeztatzen den abenduaren 24ko 685/1996 Foru Dekretuko 1. artikuluko 1. idatz-zatia, Nafarroan parke eoliko berrien onarpena indargabetzeari buruzkoa (PES-18/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Galdera 2007ko epai bati buruzkoa da, hedabideen bidez zabaldu zen eta jendeak modu horretan jakin zuen Nafarroako Gobernuaren balorazioa epai horri buruz.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2007ko urriaren 2ko epaia –non ezeztatzen den abenduaren 24ko 685/1996 Foru Dekretuaren 1. artikulua, Nafarroan parke eoliko berriak indargabetzeari buruzkoa–, ez da errekurritu eta, beraz, indarrean dago otsailaren 26ko 125/1996 Foru Dekretua, parke eoliko en ezarpena arautzen duena.

Dena dela, parke eoliko en garapena arautzen du maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuak, eta 5. artikulua xedatzen du instalazioa baimendu aurretik ezinbesteko baldintza dela garraio-edo banaketa-sareetara iristeko eta konektatzeko eskubideak lortu beharra.

2009ko maiatzaren 7tik hona baldintza berri bat dago, apirilaren 30eko 6/2009 Errege Dekretua onetsi ondoren. 4. artikulua araubide bereziko

instalazioentzako ordainketa aurrez izendatzeko mekanismo bat sartzen du, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioan kokatua. Horren arabera, ekonomia-araubideko eskubidea emateko ezinbestekoa da izena emanda egotea ordainketa aurrez izendatzeko erregistroan, bertan aipatzen diren baldintzak bete ostan.

Gaur egun, garraio-sareetara iritsi eta konektatzeko eskubideak lortzeko aukerak mugaturik daude REEren ahalmenera, nahiz eta bukatu berria den Castejón- Muru Artederretako 400 kV-ko linea Muru Artederretako 400/200 kV-ko azpi-estaziora eramateko lana, bai eta handik Iruñera konektatzea ere, Cordovilla-Orkoiengo 220 kV ardatzean, duela hiru hilabete. Lana ez dago amaituta, Gasteizko lotunearekiko eratzun bat itxi behar baita.

Bestalde, Iberdrolako banaketa-sareetara iristeko eta konektatzeko eskubideak lortzea aipatutako legearen mende dago, REEren lotune bati atxikitzen baitzaio edozein potentzia, eta banaka edo beste irteera batzuei loturik 10 MW gainditzen direnean lotune horretan, banatzaileak REEri jakinarazi behar dio, eta hark erabakiko du bideragarria den.

Beraz, parke eoliko berriak ezartzeko, REEek erabakitako irteera-ahalmena eduki behar da, eta hori gaur egun oso mugatua da Nafarroan. Horregatik da hain garrantzitsua 400eko linearen Tafalla-Gasteiz ibilbidea egitea.

Epaia argitaratu denetik izapidetu diren parkeei dagokionez, denak Nafarroan kokatutako teknologoen I+D dira, hau da, parke esperimentalak: Acciona SA- Peñablanca II, 3 MW-ko makina berria Tafallan; Mtorres SA- La Caya, 4*1,66= 4,99 MW-koa Erriberrin, eta Mtorres SA- La Sorda, 4*1,66= 6,64 MW-koa Tafallan eta Artaxoan.

Honi erantsita doaz ingurumen-izapidean dauden espedienteak.

Parke eolikoak berrindartzeari buruz, PES-00017ren txostenean erantzuten da.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Acciona S.A.

Parkea	Non	Potentzia MW	Makinak	Bestelakoak
P. Exp. Alaiz	Untzue eta Oloritz	4,5	3 AW77/1500	
P. Exp. Vedadillo	Falces	12	4 AW116/3000	
P. Exp. Barasoain	Barasoain eta Biurrun	15	5 AW116/3000	
Vedadillo II	Falces	30	10 AW109/3000	
Vedadillo III	Falces	36	12 AW109/3000	
Guztira		31,5+66		97,5

Eólica Navarra S.L.

Parkea	Non	Potentzia MW	Makinak	Bestelakoak
Ablitas Fase I	La Degollada (Ablitas)	14	7 G90/2.0 MW	Nudo La Serna
Ablitas Fase II	La Degollada (Ablitas)	26	13 G90/2.0 MW	Nudo La Serna
Cabezo Moro	Tutera y Cabanillas	40	20 G90/2.0 MW	Nudo La Serna
Monte Alto	Tutera	50	25 G90/2.0 MW	Nudo La Serna
Cabanillas II	Cabanillas	50	25 G90/2.0 MW	Nudo La Serna
Guztira		180		

Gamesa Energía S.A.

Parkea	Non	Potentzia MW	Makinak	Bestelakoak
El Valle	Cortes	49,5	11*4,5 G128-120	Nudo La Serna
Valdenavarro	Cortes	13,5	3*4,5 G128-120	Nudo La Serna
Área Las Masadas	Caparroso, Villafranca	225	50*4,5 G128-120	Nudo La Serna
Área Espinar	San Adrián, Azagra, Funes, Andosilla	238,5	53*4,5 G128-120	Nudo de Quel
Guztira		526,5		

Galdera, esnearen sektorearentzako premiazko laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du esnearen sektorearentzako premiazko laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du esnearen sektorearentzako larrialdiko laguntzei buruz (minimis) (PES-01). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren 2010eko gastuen aurrekontuan, Foru Parlamentuak onartuan, ez dago esnearen sektoreari zuzenean laguntzeko kontusailik.

2. Larrialdiko esku-hartzei dagokionez, azaroan, Europako Parlamentuak eta Ekonomia Ministroen Kontseiluak esnearen sektorearentzako funts gehigarri bat onartu zuten, 300 milioi eurokoa, 2010eko aurrekontuen kargura (FEAGA funtsak), eta hortik 12,79 milioi euro dagozkio Espainiari. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak banatuko ditu laguntza horiek, 2010eko ekainak 30 baino lehen. Kuota eskuragarriaren tona bakoitzeko laguntza 2,17 eurokoa izatea kalkulatu da.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua bi lerro nagusitan ari da inbertsioak egiten, esplotazio horiek ekonomikoki bideragarriak izan daitezen: kalitate higieniko-sanitarioa

eta esplotazioaren ekoizpena eta tamaina hobetzea.

Kalitate higieniko-sanitarioari dagokionez, ITG Ganadero-k aholkularitza ematen die esplotazioei. Era horretan, Espainia osoko kalitaterik onenetako esnea dago Nafarroan, eta horrek eragin zuzena du abeltzainak esneagatik jasotzen duen diruan. Aholkularitza-zerbitzu hori ITGGri emandako transferentzietatik finantzatu da gehienbat, eta laguntza zuzena da abeltzainarentzat, gastu gutxiago eta sarrera gehiago baititu.

Esplotazioaren ekoizpena eta tamaina hobetzeari dagokionez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak esne-behien sektoreari eman dizkio hobekuntza-planen eta lehen instalazioen laguntza gehien azken urteotan. Esplotazioak batzea eta teknifikatzea sustatu da (jezteko eta elikatze robotatuta, etab.), eta une honetan batez beste 700.000 litrotik gora ekoizten da, batez beste 243.000 nazionalaren aldean. Horri esker, esplotazioen bideragarritasun ekonomikoa eta bizi-kalitatea hobea da eta esneagatik prezio hobea kobratzen dute, tamainagatiko primen bidez.

4. Kanpaina honetan esne-behien abeltzaintzako bi laguntza-lerro berri jarri dira martxan, FEAGAk finantzatuta. Ekonomikoki ahulagoak diren zonaldeen desabantailak konpentsatu ahal izateko esne-behien abeltzainei emandako laguntzak dira, Espainiarako 40,2 milioi euro guztira, eta kalitate-sistema aitortuko esnekientzako 0,8 milioi euro.

Ildo horretan, eta horretarako aurrekontu-partidarik ez dagoenez, ez da aurreikusten zuk zure galderan aipatutako minimis laguntzak ematerik.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapena jartzeko erabiltzen diren irizpideei eta legediari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapena jartzeko erabiltzen diren irizpideei eta legediari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapenari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Irizpide teknikoak jasota daude argiztapen publikoa instalatu beharra duten proiektuei aplikatzeko arau, lege eta gomendio indardunetan. Honako hauek dira irizpide nagusietako batzuk: Behe Tentsioko Araudi Elektronikoa eta Jarraibide Osagarriak, nazioarteko CIE gomendioak, Espainiar Argiztapen Batzordearen gomendio nazionalak, etab.

Horretaz gainera, errepide-sareko puntu batzuetan (Iruñeko ingurabideak, loturak, elkarguneak, etab.) gaueko argiztapena ipintzeak bide-segurtasuna hobetzen du, erosotasuna ematen du eta joan-etorria hobetzen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko ea errepideetako gaueko argiztapenak argi kutsadurari buruzko legedia betetzen duen.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea errepideetako gaueko argiztapenak argi kutsadurari buruzko legedia betetzen duen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapenari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

- Informazio osoa dugun azken urtea 2008koa da, eta orduan 2.851.300 KWh kontsumitu ziren.

- 2000-2009 kontsumoen xehetasun-taula eranstean da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapenak dakarren energia kontsumoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapenak dakarren energia kontsumoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztape-

nari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

10/2005 Foru Legea indarrean sartu aurretik (2006ko otsailak 14) eta bere araudia onartzen duen 199/2007 Foru Dekretuaren aurretik (2007ko urriak 11) amaitutako instalazioetan ez da egin, instalazio horiek ez daudelako bere aplikazio-eremuaren baitan.

Indarrean sartu ondorengo instalazioetan zehatz betetzea eskatzen zen proiektuko baldintzen orrian.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Iruñeko ekialdeko ingurabideko gaueko argiztapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Iruñeko ekialdeko ingurabideko gaueko argiztapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapenari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Irizpideak jasota daude argiztapen publikoak instalatu beharra duen ekialdeko saihesbideko

proiektuei aplikatzeko arau, lege eta gomendio indardunetan. Honako hauek dira irizpide nagusietako batzuk: Behe Tentsioko Araudi Elektronikoa eta Jarraibide Osagarriak, nazioarteko CIE gomendioak, Espainiar Argiztapen Batzordearen gomendio nazionalak, etab.

Dena dela, nahiz eta saihesbide hori ez den sartzeko gaueko argiztapena antolatzeko 10/2005 Foru Legearen aplikazio-eremuaren baitan, hori indarrean jarrai aurrekoak baitira instalazioak, hura garatzen duen 199/2007 Foru Dekretuko xedapenak betetzen ditu hein handi batean. Lanparek eta luminariak eskatutako baldintza teknikoak betetzen dituzte, eta fluxu-erreguladoreak daude instalazioaren puntu nagusietan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Iruñeko ekialdeko ingurabidea argizatzen duten kale-argiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Iruñeko ekialdeko ingurabidea argizatzen duten kale-argiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako errepide-sareko gaueko argiztapenari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

829 luminaria daude. 259 paldo bikoitz (12 m gora), 20 paldo indibidual (12 m gora), 247 zutoin (12 m gora) eta 2 palmondotan daude (30 m gora), denak altzairu galbanizatuzkoak.

Lanparak goi-presioko sodio-lurrunezkoak dira, 250W-koak (paldoak eta zutoinak) eta 1000W-koak (palmondoak).

Luminariak Hadasa markakoak dira. Hain zuzen ere, M-400, Euro7 eta G.E. HMA modeloak instalatu ziren.

Informazio osoa dugun azken urtea 2008koa da, eta orduan 759.348 KWh kontsumitu ziren.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendariko 92. orrialdean 102. jarduketari buruz hitz egitean akatsa egin den.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendariko 92. orrialdean 102. jarduketari buruz hitz egitean akatsa egin den.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin

du Errepideen III. Gida Planaren 102. jarduerari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Oharra zuzena da. Nafarroa 2009-2016 Errepideen III. Gida Planean 102. jarduera izendatuko da "NA-4130. Imotz Ibarra. NA-1300etik sarrera hobetzea".

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, abere-saneamenduko zerbitzu berria Tragsega enpresari esleitu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du abere-saneamenduko zerbitzu berria Tragsega enpresari esleitu izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du abere-saneamenduko zerbitzu berria Tragsega enpresari esleitzeari buruz (PES-12). Hona hemen

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Tragsegari eman dio, agindu bidez, behi-, ardi-, ahuntz- eta orein-aziendetan saneamendu-kanpainak egiteko lana 2010ean. Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren abenduaren 31ko 1403/2009 ebazpenez, Animalien Osasun Abere Zerbitzuak S.A. (Tragsega) sozietateari agintzen zaio Nafarroan osasun-plan integral bat egiteko behi-, ardi-, ahuntz- eta orein-aziendak saneatzeko 2010ean, 846.294,35 euroan.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, aurrekontua murriztu izanaren ondorioz Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planean 2010ean eginen ez diren jarduketeki buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du aurrekontua murriztu izanaren ondorioz Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planean 2010ean eginen ez diren jarduketeki buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Convergencia de Demócratas de Navarra foruparlamentariaren elkarteko José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Bizkortze Planeko eta Nafarroa 2012 Planeko jarduerari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Gure ustez, Nafarroa 2012 Planeko 61100-6010-353222 aurrekontu-partidan 120. zuzenketa-aren bidez sartutako aldaketa bati buruzkoa da gal-

dera. Aldaketa horretan, hasieran esleitutako partida 3,2 milioi euro murriztu zen.

Errepideak Bizkortzeko Planaren barruan mar txan dauden obrak –Iruñita-Elizondo, Mendabia, Lodosa, Milagro eta Valtierra-Arguedaseko saihe- bideak– ez ditu kaltetuko aurrekontua murrizte horrek, kontuan hartu baitira obraren esleipeneko bajak.

Dena dela, eta jakina denez, Bizkortze Plane- ko 29 jardueretatik hiru hasi gabe daude:

- Azagrako saihe-bidea, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimen-arazoengatik.

- Orradreko bihurtunea, tokiko erakundeekin hitzartutako proiektuaren planteamendu berriaren- gatik.

- Iruñearen hegoaldeko sarrerak, Donapeko goi-lautadako garapenengatik birplanteatu beharra dagoelako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu- ko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseila- ria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Iruñerrian abiadura handiko trenaren geltokia eraikitzen haste-ko urbanizazio proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Iruñerrian abiadura handiko trenaren gel- tokia eraikitzen hasteko urbanizazio proiektuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artiku- luan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlametu- ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Convergencia de Demócratas de Navarra foruparlamentariaren elkarteko José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Bizkortze Planeko eta Nafarroa 2012 Planeko jarduerari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Urbanizazio- eta birpartzelazio-proiektuak 2010ean idaztea eta 2011ko lehen hiruhilekoan izapidetzea aurreikusten da.

2. Trenbide-azpiegitura berriaren eraikuntza finantzatuko da oraingo trenbide-azpiegiturako lurren ordain-eskubide eta urbanizazio-aprobeta-

menduekin. Ez da finantzatuko urbanizazio-kuoten bidez, trenbide-azpiegitura ez baitago urbanizazio-proiektuaren baitan.

3. AHTren Geltokia eraikitzea Sustapen Ministerioaren eskumena da. Ezin dugu informatu gure eskumenez kanpo dauden kontuez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, “I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru-laguntzak enpresentzat” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru-laguntzak enpresentzat” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du I+D+i proiektu, patente eta bideragarritasun-azterketengatik enpresei emandako dirulaguntzei buruz (PES- 151/10 eta PES

152/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Partida hori 1.000.000 eurokoa zen eta 2.500.000ra handitu zen, zuzenketa bidez.

840001-81210-7709-467302 partida da.

Ikusten den moduan, ia % 100eko erreserba egin zen, hainbat proiektuetarako.

Enpresa batzuek ebazpen-fasean proiektu-aurrekontuak doitu ondoren, zenbatekoa 2.323.857,24 euroan geratu zen (% 92,95).

Gaurdaino ordaindutakoa ia % 80 da, onartutako proiektuak atzeratu direlako edo betetze-maila txikiagoa izan delako. Atzerapenak arrazoituak direnean, ondorengo ekitaldien kargura ordainduko da.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, “I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru-laguntzak enpresentzat” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru-laguntzak enpresentzat” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du I+D+i proiektu, patente eta bideragarritasun-azterketengatik enpresei eman-

dako dirulaguntzei buruz (PES- 151/10 eta PES 152/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Partida hori 1.000.000 eurokoa zen eta 2.500.000ra handitu zen, zuzenketa bidez.

840001-81210-7709-467302 partida da.

Ikusten den moduan, ia % 100eko erreserba egin zen, hainbat proiektuetarako.

Enpresa batzuek ebazpen-fasean proiektu-aurrekontuak doitu ondoren, zenbatekoa 2.323.857,24 euroan geratu zen (% 92,95).

Gaurdaino ordaindutakoa ia % 80 da, onartutako proiektuak atzeratu direlako edo betetze-maila txikiagoa izan delako. Atzerapenak arrazoituak direnean, ondorengo ekitaldien kargura ordainduko da.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, “Merkataritza sektoreko profesionalizazioa eta berrikuntza” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Merkataritza sektoreko profesionalizazioa eta berrikuntza” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du “Merkataritza profesionalizazioa eta berritzea” aurrekontu-lerroari buruz, 500.000 €-koa (PES 152310). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Aurrekontu-partida horren kargura finantzatu zen zuzeneko dirulaguntza bat ematea Nafarroako Merkatarien Elkarteko Federazioari (FCN), Merkataritza Modernizatzeko Planean aurreikusitako hainbat proiektu gauzatzeko:

- Belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea.
- Erosketa-zentralak sortzea eta komertzioak afiliatzea.
- Merkataritzako asoziazionismoa profesionalizatzea.
- Merkataritza-dinamizatzailleak.
- Prestakuntzan jarduteko esparru-agiria.
- Fideltasun-sistema ezartzea eta zabaltzea.

Proiektu horietarako emandako dirulaguntza 500.000 €-koa izan zen, hau da, aurrekontu-partidaren % 100. FCNrekiko Lankidetzaren Hitzarmen baten bidez gauzatu zen, 2009-06-29an sinaturik, 2009-06-22ko Nafarroako Gobernuaren Akordioz baimendu ostean.

Ordainketari dagokionez, Lankidetzaren Hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, FCNk egindako jardueren justifikazioa aurkeztu du. Justifikazio horien ondorioz:

– 242.699 € ordaindu dira

– 207.300 € pasatu dira ondorengoetara, batik bat gastuak ekitaldi amaieran justifikatu direlako eta berrikusteko daudelako.

– Aurreko bi kontzeptuak zenbatuz, % 89,99ko betetze-maila ateratzen da.

Emandako dirulaguntza arteko tartea da FCNk ez dituelako gastuak behar bezala justifikatu oraindik.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, “Nafarroako Merkataritza Federazioarentzako dirulaguntza, Nafarroako Merkataritzari buruzko Foru Legea aztertzeke” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Nafarroako Merkataritza Federazioarentzako dirulaguntza, Nafarroako Merkataritzari buruzko Foru Legea aztertzeke” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Merkataritza Federazioari Nafarroako Merkataritza Lege Berria aztertzeke emandako dirulaguntzari buruz, 60.000 €-koa (PES- 154/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Aurrekontu-partida horren kargura finantzatu zen zuzeneko dirulaguntza bat ematea Nafarroako Merkatarien Elkarteko Federazioari (FCN), merkataritzako legeria garatzeko:

Emandako dirulaguntza 60.000 €-koa izan zen, hau da, aurrekontu-partidaren % 100. FCNrekiko Lankidetzaren Hitzarmen baten bidez gauzatu zen, 2009-06-29an sinaturik, 2009-06-22ko Nafarroako Gobernuaren Akordioz baimendu ostean.

Lankidetzaren Hitzarmen hori Parlamentuko aurreko galderan aipatutako bera da.

Ordainketari dagokionez, Lankidetzaren Hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, FCNk egindako jardueren justifikazioa aurkeztu du. Justifikazio horien ondorioz:

– 26.188 € ordaindu dira

– 27.810 € pasatu dira ondorengoetara, batik bat gastuak ekitaldi amaieran justifikatu direlako eta berrikusteko daudelako.

– Aurreko bi kontzeptuak zenbatuz, % 89,99ko betetze-maila ateratzen da.

Emandako dirulaguntza arteko tartea da FCNk ez dituelako gastuak behar bezala justifikatu oraindik.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, “Enpresak gizarte ekonomiako enpresa bihurtzeko laguntzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Enpresak gizarte ekonomiako enpresa bihurtzeko laguntzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak

informazioa eskatu du “Enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko laguntza” aurrekontu-lerroari buruz, 201.000 €-koa (PES 157/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Hasierako kreditua 201.000 eurokoa zen arren, partidaren betetze-maila 406.250 eurokoa izan da, hau da, % 202,11koa. Kopuru hori behar izan da deialdira aurkeztutako eskaerei erantzuteko, batez ere Fagor Ederlan Tafalla enpresako (lehenago Luzuriaga) langileak entitateko bazkide kooperatibistak bihurtzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, “Enpresak gizarte ekonomiako enpresa bihurtzeko laguntzak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Enpresak gizarte ekonomiako enpresa bihurtzeko laguntzak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak

informazioa eskatu du “Enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko laguntza” aurrekontu-lerroari buruz, non Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak zuzenketa bat aurkeztu zuen eta onartu zen, 200.000 €-koa (PES-158/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Aurreko erantzunean azaldu da partidaren betetze-maila. Gobernuak Parlamentuari bidalitako aurrekontua 1.000 eurokoa zen eta, galderak aipatzen duen zuzenketaren bidez, kreditua 201.000 eurokoa izan zen, eta hori nola bete zen azaltzen da PES 157/10en erantzunean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, “Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak lan munduan sartzeko jarduerak, kofinantzatu gabeak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak lan munduan sartzeko jarduerak, kofinantzatu gabeak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du enplegua aurkitzeko zailtasun gehien duten kolektiboak lan-munduratzeko jarduera ez-kofinantzatuei buruz, 575.000 €-koak (PES- 159/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Partida 575.000 eurokoa zen arren, zegoen eskariari erantzun ahal izateko gastu erreala 595.037,02 eurokoa izan da eta, beraz, betetze-maila % 103,48koa izan da.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, “Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak lan munduan sartzeko jarduerak, kofinantzatu gabeak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak lan munduan sartzeko jarduerak, kofinantzatu gabeak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak

informazioa eskatu du enplegua aurkitzeko zailtasun gehien duten kolektiboak lan-munduratzeko jarduera ez-kofinantzatuei buruz, non Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak zuzenketa bat aurkeztu eta onartu zen, 575.000 €-koa (PES- 160/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Gobernuak Parlamentuari bidalitako aurrekontuen proiektuko hasierako kreditua 500.000 eurokoa zen. Galderan aipatutako zuzenketaren bidez, kreditua 575.000 eurora igo eta osorik bete zen, PES 159/10en erantzunean ageri den bezala.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, “Kooperatiba eta lan sozietateetarako diru-laguntzak, enplegua sostengatzeko” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Kooperatiba eta lan sozietateetarako diru-laguntzak, enplegua sostengatzeko” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak

informazioa eskatu du kooperatibei eta lanbidesozietateei enplegua sustatzeko emandako laguntzei buruz, non Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak zuzenketa bat aurkeztu eta onartu zen, 300.000 €-koa (PES-162/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Gobernuak Parlamentuari bidalitako aurrekontuen proiektuko hasierako kreditua 1.200.000 eurokoa zen eta 1.500.000ra igo zen, galderan aipatutako zuzenketak aurrera egitean. PES 161/10en erantzunean azaltzen da nola bete zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, “Kooperatiba eta lan sozietateetarako diru-laguntzak, enplegua sostengatzeko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Kooperatiba eta lan sozietateetarako diru-laguntzak, enplegua sostengatzeko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du kooperatibei eta lanbide-sozietateei enplegua sustatzeko emandako laguntzei buruz, 1.500.000 €-koak (PES- 161/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

1.500.000 eurokoa zen partida horren betetze-maila % 84,08koa izan da, hain zuzen ere 1.261.230,60 eurokoa. Ezin izan da osorik bete, eskaerarik ezean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, “Interes sozialeko erkidego-enpleguko programa” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Interes sozialeko erkidego-enpleguko programa” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du gizarte-intereseko enplegu komunitarioko programa buruz, 600.000 €-koa (PES- 163/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

2. ataleko partida hori 600.000 eurokoa zen hasieran. Betetze-maila 599.989,02 eurokoa izan da, hau da, % 99,99-koa.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, “Ilundain Fundazioa-Lan Sarrearan” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Ilundain Fundazioa-Lan Sarrearan” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du Ilundáin- Lan Sarrearan Fundazioaren aurrekontu-lerroari buruz, 120.000 €-koa (PES- 164/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Partida hori hitzarmen bidez bete da Ilundain Fundazioarekin. Gaur egun beteta daude partidako 120.000 euroak, baina hortik % 10 (12.000 euro) ordaintzeko daude, entitate interesatuak justifikazioa aurkeztu eta aztertua izaten ari baita.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, Enpleguari buruzko Plana garatu eta aplikatzeko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, Enpleguari buruzko Plana garatu eta aplikatzeko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak

informazioa eskatu du Enplegu Plana garatzeko eta aplikatzeko CEN, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmenari buruz, 1 €-koa (PES- 165/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Partida hau euro batekoa zen eta “partida zabalgarria” zen, beharrezko funtsak gehitu ahal izateko 2009 ekitaldian, baldin eta Enplegu Plana garatzeko ekimenak sortzen baziren, Nafarroako Aurrekontuen beste partida batzuetan sartzerik ez zeudenak. Halakorik gertatu ez denez, partida hori ez da erabili, aurrez erabaki bezala eragile ekonomiko eta sozialekin.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, “Gizarterako zentroentzako dirulaguntzak inbertsioengatik” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Gizarterako zentroentzako dirulaguntzak inbertsioengatik” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du gizarteratzeko zentroeinbertsioengatik emandako laguntzei buruz, 196.000 €-koak (PES- 166/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

196.000 euroko partidatik 195.995,34 bete dira, hau da, % 99,99.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, “UPTArekiko hitzarmena, lan autonomia sustatzeko eta babesteko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “UPTArekiko hitzarmena, lan autonomia sustatzeko eta babesteko” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak

informazioa eskatu du langile autonomia sustatzeko eta babesteko UPTArekin egindako hitzarmenari buruz, 50.000 €-koa (PES- 169/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu sailburuaren erantzuna:

Partida 50.000 eurokoa zen. 45.000 euro bete dira, hau da, % 90, eta horixe da hitzarmenean aipatutako entitateak egindako inbertsioa. Osorik ez betetzearen arrazoia izan da entitate onuradunak ezin izan duela bete eta egiaztatu 45.000 euro besterik.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Nafarroako Ubidean Artaxoa eta Tafalla artean agertu diren pitzadurei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Ubidean Artaxoa eta Tafalla artean agertu diren pitzadurei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 16ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Kanalaren eraikuntzarekin lotutako alderdiei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Obra hidrauliko batean, normala da karga ipinitakoan lubetetan asentutako diferentzialak egotea, lehenbiziko erabilera-kanpainaren ondoren. Gainera, ondorio horiek nabarmenagoak izan daitezke lur-erazketatik lubetara pasatzean. Ondorioak hormigoi-estalkiaren pitzadurak izaten dira, eta jadanik konponduta daude.

2. Canal de Navarra S.A. arduratzen da uraren fluxuaz eta hura kanalizatzeaz, baldin eta fluxu hori ohi baino handiagoa bada eta erretenaren edukiera gainditzen badu.

3. Ez da obra berria, baizik egiten ari den eta Sociedad Canal de Navarrak oraindik jaso ez duen obra baten egokitzapen tekniko egitea. Horrek eragina izanen du eraikuntza-enpresaren gastuetan, edo zati horren eraikuntza-kostuen barruan finantzatuko du eta, beraz, ez da aurrekontu-partida berezirik beharko.

4. Konponketak eginda daude eta tarte hori zerbitzuan dago, neguan ez baita ureztatzen eta, gainerako kanaletan bezala, orduan egiten dira ohiko mantentze-lanak.

5. Azpiegituretik drainatutako ura botatzen den erretenaren emaria handitu egingen da, ustez. Dena dela, ingurumenaren ikuspegitik eta Ingurumen Zaintzarako Planaren arabera, behar bezalako jarraipena egingen zaio, neurri osagarriak hartu behar badira ere.

6. Justu ureztatze-kanpaina hasi aurretik amaitu zen tarte hori. Ureztatze-kanpaina bertan behe-erazte erabaki zen, ureztatzaileei justizia egiteko, eta zerbitzuarekin batera egin ziren probak, ureztatzaileen ur-erabileran sartu gabe, ureztatze-ko inbertsio handiak egin baitituzte eta ezin ziren zerbitzurik gabe geratu. Lehenagoko tarteetan, aldiz, partzelak ureztatze-ko prest egon baino lehen amaitu dira obrak, eta zerbitzua ematen hasi aurretik egin ahal izan ziren probak.

7. Errekara doan ura da sifoiatik hustutakoa eta ibarretik zetorkiona (orain Artaxoako urtegiak eten du), hau da, ez zaio iristen pitzaduretatik ateratako urik eta, gainera, urtegiaren erregulazio-lanak asko murrizten du errekek gainezka egiteko aukera. Errekak gainezka egiteko arriskua ia erabat desagertu dela esan liteke, garbi dagoen bitartean. Nolanahi ere, pitzadurak agertu aurretik akordio bat egin zen Artaxoako alkatearekin, Canal de Navarrako mantentze-ekipoak aldizka erreka garbitzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Santo Domingo zahar-etxe egoiliarrak beste zahar-etxe batzuetara eraman behar izateko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Santo Domingo zahar-etxe egoiliarrak beste zahar-etxe batzuetara eraman behar izateko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 18ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak Santo Domingo zahar-etxe egoiliarrak beste zahar-etxe batzuetara eraman behar izateko arrazoiei buruzko galdera egin du (PES 326/09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Eceolaza jaunak azken aldian egindako galderetan behin eta berriro agertu duen kontuaren inguruan, oraindik ez da behin betiko erabakirik hartu Lizarrako Santo Domingo zahar-etxeari buruz.

Lehenago ere esandako moduan, aurrena, xehetasun-azterlan bat egin zen, ikusteko ea zer aukera zegoen egungo zahar-etxea berritzeko, zahar-etxea handituta eta modernizatzeko behar bezala egokituta.

Hala ere, proiektu honek zailtasun teknikoak eta arkitektonikoak dituenez, Nafarroako Mendekotasun Agentzia beste norabide batzuetan hasi da lanean, eta aztertu duen aukeretako bat izan da zahar-etxe hau San Jeronimo zahar-etxera eramatea; ikusi beharra dago, hala ere, aukera hori bideragarria ote den.

Ildo horretan, joan den abenduan gai horri buruzko bilera egin zen zahar-etxe horretako arduradunekin, eta dauden aukerak aztertu ziren. Bileran horren ondorioz, Departamentuko zerbitzu juridikoei eskatu zaie dauden aukeren eta haien bideragarritasun juridikoaren azterketa eta txostena egitea.

Gaur egun halaxe dago, beraz, galderak hizpide duen gaia, eta oraindik ez da behin betiko erabakirik hartu horri buruz.

Iruñean, 2010eko otsailaren 15ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, 2009-2016 urteetarako Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendariko 102. eta 103. jardueri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2009-2016 urteetarako Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendariko 102. eta 103. jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ihaben eta Latasako sarrera batzuetatik ibilgailu astunak igarotzeko debekuekin lotutako alderdiei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako 2009/2016 Errepideetako III. Gida Plana gorabehera, gehieneko karga murriztu egin da Larraun ibaiaren gaineko Latasako zubietan (NA-4130-5-U-0000), eta NA-4150 errepidearen (Leitza-Goizueta-Hernani) 9+700 KPan, Urumea ibaiaren gainean (NA-4150-3-U-0097), egituren egoerak badaezpada hala eskaturik. Izan ere, ikuskapena egin zuen UTE SERTECNA-FHECOR enpresak, Nafarroako Foru Erkidegoko Errepide Sareko zubietan kudeaketa-sistema bat ezartzeko aholkularitza eta laguntza teknikoaren kontratuaren esleipendunak.

2. Basaburua ibaiaren gaineko Ihabengo zubia (NA-4140-5-U-0000), UTE SERTECNA-FHECOR enpresaren txostenaren arabera, gaur egun exijitzen direnak baino txikiagoak diren karga-trenetarako dago proiektatua. Horretaz gainera, egitura

herdoiltzen hasita dago eta, beraz, aurreko kasuetan bezala, badaezpada karga murriztea gomendatzen da.

3. Murrizketak ez die eragiten gehieneko karga baimendua 20 Tn-tik behera duten ibilgailuei, hau da, bertatik igarotzen diren gehienei. Gehieneko zama adierazitakoa baino handiagoa duten ibilgailuek erabili beharko dituzte Foru Komunitateko errepide-sareak eskaintzen dituen ordezeko ibilbideak.

4. Adierazitako moduan, UTE SERTECNA-FHECOR enpresak –Nafarroako Foru Erkidegoko Errepide Sareko zubietan kudeaketa-sistema bat ezartzeko aholkularitza eta laguntza teknikoaren kontratuaren esleipendunak– Foru Erkidegoko zubi guztien inbentarioa eta ikuskapena egin du.

Inbentario-ikuskapenaren emaitza PONTI kudeaketa-aplikazioan dago, eta laburturik dago inbentario-fitxetan eta karga-murrizketa edo jardura osagarriak dituzten zubien zerrendan.

5. Zubietako gehieneko karga-mugapenak erabiltzaileen segurtasunagatik ipintzen dira.

Ordezko bideak daude, eta mugapen horietara egokitzen diren garraiobideak ere erabil daitezke.

Honi erantsita doaz zubien inbentario eta ikuskapeneko fitxak, karga-mugapena duten zubien zerrenda laburtua eta gehieneko kargaren mugapen-seinaleen kokapena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko ea zertan diren Nafarroako batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea zertan diren Nafarroako batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planei buruz (PES-19). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Une honetan, Natura 2000 sareko lekuen kudeaketa-plana egoera honetan dago:

– Behin betiko onartu zain (laster onartzea aurreikusten da):

ES0000126	Orreaga-Irati
ES2200018	Belate
ES0000134	Las Cañas uharka

– Parte-hartze publikoa amaiturik (ondoren Nafarroako Ingurumen Kontseilutik igaro eta Foru Dekretuz behin betiko onartu zain):

ES0000122	Aritzakun/Urritzate
-----------	---------------------

– Une hauetan parte-hartze prozesuan (irailean hasi eta amaitu gabe):

ES0000123	Larra-Aztaparreta
ES2200009	Larrondo-Kartxela
ES0000130	Arrigorrieta mendia/ Ezkaurre

– Parte-hartze publikoa udaberrirako aurreikusten da:

ES0000133	Pitillasko Aintzira
ES2200027	Ezka eta Bintze errekek
ES2200012	Zaraitzu erreka
ES2200025	Irati/Urrobi eta Erro erreketako ibai-sistema
ES2200015	Orabidea erreka

– Kudeaketa Plana ematea eta parte-hartze publikoa udazkenerako aurreikusten da:

ES2200010	Artikutza
ES2200014	Bidasoa ibaia
ES2200023	Artesiaga errekekako bokalea
ES2200020	Aralar

– Gainerakoa, bioeskualde mediterraneoari dagokiona, 2011 eta 2012an egitea aurreikusten da.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, “Harrizko ezpondak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Harrizko ezpondak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko

aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Aipatutako partidaren saldo finkatua 620.000 €-koa izan zen, eta 54.161,12 € geratu ziren gastatu gabe. Izan ere, urtero 30.000,00 € inguru uzten dira konprometitu gabe, ustekabeen ager daitezkeen larrialdietarako. Bestalde, Udalek egingdako obrak direnez, sarritan gertatzen dira bajak esleipenetan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Harrizko ezpondak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Harrizko ezpondak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak

galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Partida horren 120.000 €-ko gehikuntza bete eta osorik ordaindu da lubeta bat egonkortu ahal izateko Miranda Argara sartzeko bidean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Zilbetiko errepidea” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Zilbetiko errepidea” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak

galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Aipatutako partida ez da batere bete, ezinezkoa baita: ez dago partida horrekin egin beharreko jardueren xede zehatzik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Zeharbideak eta hitzarmenak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Zeharbideak eta hitzarmenak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

2009ko aurrekontuko Zeharbideak eta Hitzarmenak partida % 97,57 bete da, hau da, partidak zituen 3.470.000 eurotik 3.385.738 euro gastatu dira.

Zaila da aurrekontuaren kopurua egindako obretara egokitzea. Izan ere:

– Zeharbideetako obrak soilik Udalen eskumen dira, haiek obrak eta proiektuak esleitu eta ziurtagiriak bidaltzen dizkiote Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, obrak egin ahala.

– Udalek eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hitzarmen bat sinatzen dute, non Departamentuak finkatzen duen obretan izanen duen parte-hartze ekonomikoa, obrak esleitu aurretik. Esleipenaren ondoren bajak egon ohi dira, baja horiek zuzenean biltzen dira Hitzarmenera, eta konprometitutako kopurua gehienez % 10 gehi daiteke, justifikatu ondoren.

– Obrek amaitzeko eta ziurtagiriak emateko epeak bukatu ohi dituzte, asko urtearekin batera amaitzen dira eta, beraz, ezinezkoa izaten da

hainbat urteko beste hitzarmenak aldatzea partidako kopuru erabilgarria optimizatzeke.

– Cascanteko Udalari 342.814,11 euroko laguntza eman zitzaion eta Caparrosokoari 36.296,59 eurokoa, aurkeztutako ziurtagiriengatik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Zeharbideak eta hitzarmenak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Zeharbideak eta hitzarmenak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

2009ko aurrekontuko Zeharbideak eta Hitzarmenak partida % 97,57 bete da, hau da, partidak zituen 3.470.000 eurotik 3.385.738 euro gastatu dira.

Zaila da aurrekontuaren kopurua egindako obretara egokitzea. Izan ere,

– Zeharbideetako obrak soilik Udalen eskumen dira, haiek obrak eta proiektuak esleitu eta ziurtagiriak bidaltzen dizkiote Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, obrak egin ahala.

– Udalek eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hitzarmen bat sinatzen dute, non Departamentuak finkatzen duen obretan izanen duen parte-hartze ekonomikoa, obrak esleitu aurretik. Esleipenaren ondoren bajak egon ohi dira, baja horiek zuzenean biltzen dira Hitzarmenera, eta konprometitutako kopurua gehienez % 10 gehi daiteke, justifikatu ondoren.

– Obrek amaitzeko eta ziurtagiriak emateko epeak bukatu ohi dituzte, asko urtearekin batera amaitzen dira eta, beraz, ezinezkoa izaten da hainbat urteko beste hitzarmenak aldatzea partidako kopuru erabilgarria optimizatzeke.

– Cascanteko Udalari 342.814,11 euroko laguntza eman zitzaion eta Caparrosokoari 36.296,59 eurokoa, aurkeztutako ziurtagiriengatik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: tarifa sozialak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: tarifa sozialak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Betetze-maila % 11,37koa izan da, 17.067,80 euro gastatu baitziren. Neurria ez zen indarrean sartu 2009ko urria arte.

Zuzenketa xede jakinik gabe aurkeztu zen, eta ezartzeko aukerak eta kostuen kalkulua aurrez aztertu gabe.

Horregatik, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak partidaren xedea eta aukera posibleak zehaztu behar izan zituen. Horretarako, kontuan hartu zituen Tuterako herri-garraioaren erabiltzaileen kopurua eta Iruñerriko herri-garraioan tarifa sozialen erabiltzaile kopurua. Horik Tuterako Udalari tarifen sarrera txikiagoagatik zegokion ordaina kalkulatu zen, tarifa sozialengatik, autobus-bonuagatik eta autobusez doan alda-

tzeagatik. 2009rako 68.271,17 euro kalkulatu ziren.

Azterketa horretan oinarrituz, Hitzarmen bat sinatu zen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Tuterako Udalaren artean, udalerrri horretan autobus-garraio publikoa sustatzeko, tarifa murriztuen bidez.

Hitzarmen horren bidez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak osorik finantzatzen ditu autobus-bonuaren, A, B eta C tarifa sozialen eta autobusez doan aldatzearen ondorio diren sarrera txikiagoak.

Hitzarmena 2009ko ekainaren 10ean sinatu zen, eta 7. klausulak dioenez, tarifak sozialak onartu eta hurrengo hilabetean, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak aurrerapen bat emango dio Tuterako Udalari, eta kopuru hori erabakiko da urteko ekarpena zati 2009an tarifa murriztuak aplikatzen diren hilabeteak eginez. Tarifa murriztuak 2009ko urriaren 3an sartu ziren indarrean. 17.067,80 euro aurreratu ziren.

Gobernu Akordio bidez baimendu zitzaion garraio-zuzendari nagusiari 212.193,28 euroko laguntza ematea Tuterako Udalari, udalerrri horretan autobus-garraio publikoa sustatzeko, tarifa murriztuen bidez, finantza-araubide honekin:

– 2009. urtean: 68.271,17 euro.

– 2010. urtean: 70.346,97 euro.

– 2011. urtean: 73.575,14 euro.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: gazteak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: gazteak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Partidaren % 13,9 gauzatu da, aholkularitza-enpresaren azterketako kostu-aurreikuspena ez baita bete.

Deskontuaz gehiago baliatzeko eta gazteen artean garraio publikoa sustatzeko, Garraio Zuzendaritza Nagusiak zabaldu egin zuen neurriaren estaldura, ekainaren 15eko 202/2009 ebazpenez, eta deskontuen onuradun izateko gutxieneko adina 16 urtetik 14ra pasatu zen eta, gainera, hori bateragarria zen beste tarifa-murrizketa batzuekin.

Billetean % 30eko murrizketa konpentsatzeko gastatutako kopuruari 11.537,94 euro gehitu behar zaizkio, gazteei Txartela banatzearena, eta Garraio Zuzendaritza Nagusiaren beste partida baten kargura joan da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: gazteak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Nafarroako beste toki batzuetako garraio publikoarentzako ekarpena: gazteak” izeneko kontusailari buruzko zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Aipatutako partidaren gehitzea ez da batere bete, ez baitzegoen beharrik. Izan ere, Gobernuaren 2008ko azaroaren 17ko Akordioz, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko bidaiarien garraio publikoko enpresei 1.952.135,57 euroko ordaina ematea onartu zen, txartela % 30

merkatu zitzaielako Garraio Txartel Gaztea zute-nei, finantza-araubide honekin:

- 2008. urtean: 72.516,26 euro.
- 2009. urtean: 556.924,24 euro.
- 2010. urtean: 626.539,77 euro.
- 2011. urtean: 696.155,30 euro.

Gobernuaren Akordioz onartutako kopurua Nafarroaren 2009ko Aurrekontu Orokorrean sartu zen eta, beraz, lehen esan bezala, ez zegoen zuzenketaren beharrik neurria betetzeko, dirua konprometitu baitzegoen lehendik.

2010erako, aurrekontuko partidaren eboluzioa ikusirik, Garraio Zuzendaritza Nagusiak, neurria urte horretan ustez kostatuko dena kalkulatzeko aholkularitza-enpresa bati eskatutako txostena oinarri harturik, 2010erako aurreikusitako gastua Gobernu Akordioz aldatzea proposatu zen, eta 350.040 eurokoa izatea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Tafallako saihebiderearen proiektua” izeneko kontusaila betetze-aren gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Tafallako saihebiderearen proiektua” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren Proiektu, Trenbide eta Obra Hidraulikoen Zerbitzuko 2009ko aurrekontuak 150.000,00 euroko partida aurreikusten zuen Tafallako Saihebiderearen Proiekturako.

Tafallako Hegoaldeko Saihebiderearen Proiektuak Ingurumen Eraginaren Deklarazioa eskatzen du aurrez eta, beraz, Informazio Azterketa eta Ingurumen Eraginaren Azterketa egin behar da.

Tafallaren Hegoaldeko Saihebiderearen Informazio Azterketa eta Eraikuntza Proiektua egitearen kostuak aise gainditzen du partida horretarako izendatutako aurrekontua. Era berean, Ingurumen Eraginaren Deklarazioa izapidetzeko eta Eraikuntza Proiektua idatzi eta onartzeko behar den denborak aise gainditzen ditu aurrekontu-erabilgarritasunaren 12 hilabeteak.

Horregatik, Proiektu, Trenbide eta Obra Hidraulikoen Zerbitzuak dokumentu horiek banaka kontratatzea erabaki zuen eta, lehenik, Informazio Azterketa 130.000,00 euroan eskaini zen.

Obra Publikoen zuzendari nagusiaren uztailaren 20ko 833/2009 ebazpenez, Tafallaren Hegoaldeko Saihebiderearen Informazio Azterketa egiteko laguntza teknikoa esleitu zitzaion Azieta Ingeniería, S.L. enpresari, 99.402,60 euroan, % 17,16 merkeago, 2009ko aurrekontuko aipatutako partidaren kargura.

2009ko abenduan dokumentazio guztia aurkeztu, eta Azieta Ingeniería, S.L.ri ordaindu zitzaion kontratuaren esleipeneko zenbateko osoa. Ingurumen Eraginaren Deklarazioa egin ostean kontratatutako da aukeratutako Eraikuntza Proiektua.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Garraio publikoari buruzko azterlanak eta proiektuak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Garraio publikoari buruzko azterlanak eta proiektuak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz.

Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Betetze-maila % 68,6koa izan da, eskaintzarik onuragarrienari esleitu baitzitaion azterketa.

Tarifa-deskontuak 16 eta 25 urte arteko gazteen artean eta Foru Erkidegoko beste kolektibo batzuen artean izandako harreraren azterketa izan da, eta 30.875 euro kostatu da.

Azterketa hori prozedura negoziatuz esleitu zen, publizitaterik gabe. Kontratu Publikoen ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 70.2 artikulua exijitzen duen moduan, eskaintzarik onuragarrienari esleitu zitzaion azterketa, 30.875 euroan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

Galdera, “Garraio publikoa sustatzeko ekintzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Garraio publikoa sustatzeko ekintzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz.

Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Betetze-maila % 76,4koa izan da. 15.287,92 euro gastatu dira.

Jarduera hauek egin dira:

– Nafarroako Garraio Txartel Gaztearen publizitatea Nafarroan tirada gehien duten bi egunkarietan, eta Iruñeko autobus-geltokiko ateetan. (13.547,92 €)

– Telefonía mugikorreko sustapena (1.740 €)

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, zenbait kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu zenbait kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horien erantzuna, Foru Diputazioak emanak, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Galderak argitaratu ziren 2010eko otsailaren 12ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du 2009ko aurrekontuko hainbat partida betetzeari buruz (PES- 126 a 148). Hona

Landa Garapeneke eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

23 galdera diren arren, berez 16 partida baino ez dira: batzuk bitan agertzen dira, eta batean zenbateko osoaz galdetzen da eta bestean zuzenketen bidez gehitutako zenbatekoaz.

Hori esanik, hona betetze-maila:

700001 71430 2279 468100 (**) Nekazaritza-estatistikako urteroko lanak	100,0
710001 71230 4700 414200 (**) Konpentsazio-ordaina PDR FEADER	100,0
710001 71230 4700 414202 (**) Nekazaritza eta ingurumen arloetako neurriak. PDR FEADER	70,4

Departamentu honetatik bidalitako 2008ko aurrekontuen eta 2009ko aurrekontu-proposame-

naren nekazaritza eta ingurumen arloetako neurrien partida nekazaritza ekologikoarentzako laguntzak finantzatzeko zen, soil-soilik. Partida hori handitu egin denez aurrekontuen parlamentuko izapidean, nekazaritza ekologikoari laguntzeko eskabidea berriak aurkeztu utzi da, hasieran aurreikusten ez zena, eta nekazaritza eta ingurumen arloetako hiru laguntza-lerro berri jarri dira abian, partida horren kargura; hain zuzen ere, nekazaritzan plastiko biodegradagarriak erabiltzeko, estentsiboko arraza autoktonoentzako, eta hazitarako patataren ekoizpen integraturako. Laguntza horiek abian jarri arren, eta estentsiboko arraza autoktonoentzako laguntzak izan ezik (izen-datutako aurrekontu guztia amaitu du), gainerako lerroetan, eskatutako laguntzak txikiagoak izan dira eskura zegoen aurrekontua baino eta, ondorioz, aurrekontua % 70,4 bete da.

720001 72120 7609 414306
(**) Cortesko Udalar
dirulaguntza abeltzearako 100,0

721000 72200 7709 413100
(**) Azpiproduktuak eta hondakinak
kudeatu eta balioesteko hitzarmena 73,4

Eskatu bezala, TRASAk partida honen kontra 2009ko ekitaldian aurkeztutako gastuen aurrekontua 135.550,00 eurokoa izan zen. Nafarroako Gobernuaren 2009ko maiatzaren 18ko Akordioaren bidez, dirulaguntza bat ematea onartu zen Tratamientos Subproductos Agroalimentarios S.L.ri (TRASA), 2009an azpiproduktu horiek kudeatzeko eta balioesteko. Laguntza horiek minimis dira, 2006ko abenduaren 15eko (EE) 1998/2006 Erregelamenduaren arabera, minimis-laguntzen Tratatuko 87. eta 88. artikulua aplikatzeari buruzkoa (2006-12-28ko D.O.U.E. L 379). TRASARI eman ahal izan zitzaion gehieneko laguntza 95.452 €-koa izan zen, 2007an eta 2008an 104.548 jaso baitzituen, bere minimisen aitortzean agertzen den bezala, eta ezin zituen 200.000 euro gainditu hiru urte fiskaletan. Aipatutako partidaren kontrako laguntza TRASAREKIKO Hitzarmen baten bidez egin zen, eta oso-osorik bete ziren Dirulaguntzen Foru Legea nahiz batasuneko araudia.

721000 72210 4701 413107
(**) Nekazaritza-kooperatibentzako
laguntzak, kudeaketa-planak egiteko 98,0

Osoz bete dela esan liteke. Diferentziaren arrazoia da diferentzia txikien batura, bateko erreserbaren eta besteko banakako espedienteetan laguntzak jasotakoaren artean. Hain zuzen ere, 25 espediente aurkeztu ziren, denei esleitu zitzaion eskatutakoaren % 50, eta ez zen penalizaziorik egon.

721000 72210 7700 413100
(**) Ebroko Laborategiarentzako
dirulaguntza 100,0

721001 72220 4459 413104
(**) Nekazaritza ekologikoaren
batzorde arautzailea 100,0

721001 72220 7701 413100
(**) Elikagaien segurtasuneko
CONSEBRO proiektua 100,0

721002 72230 4819 412100
(**) UAGNrentzako dirulaguntza 100,0

721002 72230 4819 412102
(**) EHNERentzako dirulaguntza 100,0

721002 72230 7700 412103
(**) Makineriarako eta
produktzio-bideetarako dirulaguntzak 88,4

Aurrekontua ez da % 100ean bete, espediente batek epearen barruan baina berandu aurkeztu baitzuen dokumentazio osoa, eta beste espediente batzuk guztiz ez gauzatzeagatik eskatutako funtsak ezin izan zirelako berriz izendatu. Nolanahi ere, une hauetan laguntza-eskari guzti-guztiei erantzun zaie, 2009 edo 2010eko ekitaldien kargura.

722000 72300 4819 412100
(**) FUNDAGROrentzako dirulaguntza 100,0

722000 72310 4090 412100
(**) Landa-ingurunearen garapen
iraunkorrerako hitzarmen pilotu Legeak 0,0

Partida hori ez da erabili beharrik izan, Nafarroak Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurune-ko Ministerioari aurkeztutako proiektu pilotuetatik bakarra onartu baitzen, eta, gainera, Ministerioak erabat bere gain hartu zuen proiektuaren finantzazioa, eta foru-kutxek ez zuten deus finantzatu beharrik izan.

740002 74200 4609 456303
(**) Pitillasko Udalarekiko Hitzarmena 74,7

Azkenean, partidaren 101.617,37 euro gastatu dira. Horietatik 47.853,48, aintzira kudeatzeko Pitillasko Udalarekin egindako hitzarmenari dagozkio: bisitarien arreta, zainketa, mantentze-lanak, etab. Gainerako 53.763,89 euroak aintzirak Pitillasko udalari sortzen dion lortu gabeko irabazien ordainagatik dira, balorazio teknikoaren arabera. Gastu txikiagoa ez da, beraz, ekintza batzuk gauzatu ez direlako, baizik eta gastu justifikagarria baino handiagoa izan delako dirulaguntza.

740002 74200 4700 456300
(**) Nekazaritza eta ingurumen
arloetako neurriak eta konpentsazio-ordaina 19,6

Partidako 426.925,7 euro gastatu dira. Horieta-
tik 328.725,7 dira lehorreko labore-sistema esten-
tsiboei emandako nekazaritza- eta ingurumen-
laguntzengatik, hasieran 900.000 euro aurreikusi
baziren ere. Aurreko bost urtekoaren aldean eska-
era gutxiago egon direlako apaldu da gastua. Bes-
talde, mendi-larreentzako Natura 2000 Neurrien-
gatik 98.200 euro ordaindu zaizkio Alduide mendia
Kontserbazio Bereziko Zonari eta Orreaga-Iratiko
oihana Batasunaren Intereseko Lekuari, Auritzi,
Aurizberriri, Kintoako Mankomunitateari eta Zarai-
tzu Ibarreko Batzordeari. Natura 2000ko beste

leku batzuetan ez zegoenez larreen antolamendu-
plan onarturik, laguntza hau leku horietan abian
jartzea atzeratu egin da eta gutxiago gastatu da.
Azkenik, hainbat arrazoiengatik ezin izan da
abian jarri estepako artzaintzaren Natura 2000
Neurria, hasieran Bardeak eta Ablitasko Kontser-
bazio Bereziko Zonarako aurreikusten zena, eta
2010erako utzi da.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontsei-
laria: Begoña Sanzberro Iturriria